

Ley Orgánica 6/1984, de 24 de mayo, Reguladora del Procedimiento de Habeas Corpus

BOE, nº 126, de 26 de mayo

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El constitucionalismo moderno tiene un objetivo fundamental, que constituye, al mismo tiempo, su raíz última: el reconocimiento y la protección de la vida y la libertad de los ciudadanos.

Las constituciones que son verdaderamente tales se caracterizan, precisamente porque establecen un sistema jurídico y político que garantiza la libertad de los ciudadanos y porque suponen, por consiguiente, algo más que una mera racionalización de los centros de poder.

Nuestra Constitución ha configurado, siguiendo esa línea, un Ordenamiento cuya pretensión máxima es la garantía de la libertad de los ciudadanos, y ello hasta el punto de que la libertad queda instituida, por obra de la propia Constitución, como un valor superior del Ordenamiento.

De ahí que el texto constitucional regule con meticulosidad los derechos fundamentales, articulando unas técnicas jurídicas que posibilitan la eficaz salvaguarda de dichos derechos, tanto frente a los particulares como, muy especialmente, frente a los poderes públicos.

Una de estas técnicas de protección de los derechos fundamentales —del más fundamental de todos ellos: el derecho a la libertad personal— es la institución del «Habeas Corpus».

Se trata, como es sabido, de un instituto propio del Derecho anglosajón, donde cuenta con una antiquísima tradición y se ha evidenciado como un sistema particularmente idóneo para resguardar la libertad personal frente a la eventual arbitrariedad de los agentes del poder público.

Su origen anglosajón no puede ocultar, sin embargo, su raigambre en el Derecho histórico español, donde cuenta con antecedentes lejanos como el denominado «recurso de manifestación de personas» del Reino de Aragón y las referencias que sobre presuntos supuestos de detenciones ilegales se contienen en el Fuero de Vizcaya y otros ordenamientos forales, así como con antecedentes más próximos en las Constituciones de 1869 y 1876, que regulaban este procedimiento, aun cuando no le otorgaban denominación específica alguna.

El «Habeas Corpus» ha demostrado históricamente su funcionalidad para proteger la libertad de los ciudadanos.

De ahí que la Constitución, en el número 4 del artículo 17, recoja esta institución y obligue al legislador a regularla, completando, de esta forma, el complejo y acabado sistema de protección de la libertad personal diseñado por nuestra norma

Maiatzaren 24ko 6/1984 Lege Organikoa, Habeas Corpus Prozedura Arautzekoa

EAO, 126. zk., maiatzaren 26koa

ZIOEN AZALPENA

Konstituzionalismo modernoak oinarrizko xedea du, aldi berean, bere sustrairik sakonena dena: herritarren bizitza eta askatasuna aitortu eta babestea.

Benetako konstituzioen ezaugarri da herritarren askatasuna babesteko sistema juridiko eta politikoa ezartzea, eta, ondorenez, halako konstituzioak aginte-guneen arrazionalizazioak baino zerbait gehiago dira.

Ildo horretatik, Espainiako Konstituzioak eraturako antolamenduaren xede nagusia da herritarren askatasuna bermatzea. Bada, Konstituzioak berak eratu du askatasuna antolamenduko balio nagusi bezala.

Hori dela eta, konstituzio- testuak zehaztasunez arautu ditu oinarrizko eskubideak, eskubide horiek babesteko teknika juridiko zehatz batzuk ezarriz, subjektu pribatuei begira, eta, bereziki, botere publikoei begira.

«Habeas Corpus» erakunde da oinarrizko eskubideak —eta horien artean oinarrizkoena: norberaren askatasunerako eskubidea— babesteko teknika horietatik bat.

Jakina denez, erakunde hori zuzenbide anglosaxoniarraren berezko erakunde da. Zuzenbide horretan tradizio handiko erakunde izanik, sistema guztiz egokitzat jo da, norberaren askatasuna babesteko, botere publikoko agenteek izan dezaketen nahierakeriaren aurrean.

Hala ere, erakundearen jatorri anglosaxoniarrak ezin ezkuta ditzake erakunde horrek Espainiako zuzenbide historikoan dituen sustraiak; izan ere, Espainiako zuzenbide historikoan badira antzinako aurrekari batzuk, hala nola, Aragoiko Erresumako «recurso de manifestación de personas» delakoa, eta Bizkaiko Foruan nahiz beste foru-antolamendu batzuetan jasotako aipamenak, ustez legearen aurkako ziren atxiloketen inguruan. Gainera, badira hurbilagoko aurrekariak, 1869 eta 1876ko konstituzioek prozedura hori arautu baitzuten, nahiz eta horretarako izendapen berezirik ezarri ez.

Historian zehar «Habeas Corpusak» argi utzi du bere eragingarritasuna herritarren askatasuna babesteko.

Beraz, Konstituzioak, 17. artikuluko 4. paragrafoan, erakunde hori jaso eta legegileari ezarri dio horren inguruko arauketa egiteko betebeharra. Modu horretara, osatu egiten da Espainiako oinarrizko arauak norberaren askatasuna babesteko

fundamental.

La regulación del «Habeas Corpus» es, por consiguiente, un mandato constitucional y un compromiso de los poderes públicos ante los ciudadanos.

La pretensión del «Habeas Corpus» es establecer remedios eficaces y rápidos para los eventuales supuestos de detenciones de la persona no justificados legalmente, o que transcurran en condiciones ilegales.

Por consiguiente, el «Habeas Corpus» se configura como una comparecencia del detenido ante el Juez, comparecencia de la que proviene etimológicamente la expresión que da nombre al procedimiento, y que permite al ciudadano, privado de libertad, exponer sus alegaciones contra las causas de la detención o las condiciones de la misma, al objeto de que el Juez resuelva, en definitiva, sobre la conformidad a Derecho de la detención.

La eficaz regulación del «Habeas Corpus» exige, por tanto, la articulación de un procedimiento lo suficientemente rápido como para conseguir la inmediata verificación judicial de la legalidad y las condiciones de la detención, y lo suficientemente sencillo como para que sea accesible a todos los ciudadanos y permita, sin complicaciones innecesarias, el acceso a la autoridad judicial.

Estos son los objetivos de la presente Ley Orgánica, que se inspira para ello en cuatro principios complementarios.

El primero de estos principios es la agilidad absolutamente necesaria para conseguir que la violación ilegal de la libertad de la persona sea reparada con la máxima celeridad, y que se consiga instituyendo un procedimiento judicial sumario y extraordinariamente rápido, hasta el punto de que tiene que finalizar en veinticuatro horas.

Ello supone una evidente garantía de que las detenciones ilegales, o mantenidas en condiciones ilegales, finalizarán a la mayor brevedad.

En segundo lugar, la sencillez y la carencia de formalismos, que se manifiestan en la posibilidad de la comparecencia verbal y en la no necesidad del Abogado y Procurador, evitarán dilaciones indebidas y permitirán el acceso de todos los ciudadanos, con independencia de su nivel de conocimiento de sus derechos y de sus medios económicos, al recurso de «Habeas Corpus».

En tercer lugar, el procedimiento establecido por esta Ley se caracteriza por la generalidad que implica, por un lado, que ningún particular o agente de la autoridad puede sustraerse al control judicial de la legalidad de la detención de las personas, sin que quepa en este sentido excepción de ningún género, ni siquiera en lo referente a la Autoridad Militar, y que supone, por otro lado, la legitimación de una pluralidad de personas para instar el procedimiento,

diseinatutako sistema konplexu eta oro hartzailea.

Horrenbestez, «Habeas Corpusaren» arauketa, konstituzio-agindua ez ezik, botere publikoek herritarrei begira duten konpromisoa ere bada.

«Habeas Corpusaren» xedea da konponbide eragingarri eta arinak ezartzea, norbait lege-justifikaziorik gabe atxilotu edo atxiloteta hori legearen aurkako baldintzetan egiten den balizko egoeretan.

Ondorenez, «Habeas Corpusaren» bidez atxilotua epailearen aurrera agertzen da. Agertze hori da, gainera, prozedurak duen izenaren jatorri etimologikoa. Egin-eginean ere, agertze hori dela bide, askatasunaz gabetuta dagoen herritarrek bere alegazioak egin ditzake atxiloteta-arrazoari edo baldintzen aurka, epaileak behin betiko ebatz dezan atxiloteta zuzenbidearekin bat datorren ala ez.

Hortaz, «Habeas Corpusaren» arauketa eragingarria izan dadin, prozedura arina ezarri behar da, eta prozedura hori izan behar da atxilotetaren legezkotasuna eta atxiloteta egiteko baldintzak epailearen bidez berehala egiaztatzeko bezain arina. Halaber, prozedura hori erraza izan behar da, herritar guztiek horretaz baliatzeko aukera izan eta agintari judizialarengana jo dezaten, alferrikako zailtasunik gabe.

Horiexek dira lege organiko honen xedek, eta, horretarako, lau printzipio osagarritan oinarritzen da. Printzipio horien artean arintasuna da lehenengoa.

Hurrean ere, arintasuna nahitaezkoa da, pertsonaren askatasunari begira legearen aurka dagoen urratzea ahalik azkarrena konpon dadin. Bada, arintasun hori erdiesteko prozedura judizial sumario eta oso azkarra ezarri behar da, hain zuzen, hogeita lau orduan amaitu behar dena.

Horrek argi eta garbi bermatzen du, legearen aurkako atxilotetak edo legearen aurkako baldintzetan irauten dutenak laster amaitzea.

Bigarrenik, erraztasunaren eta formalismorik ezaren agerpenak dira, besteak beste, hitzezko agerraldia egin ahal izatea, eta abokatu eta prokuradorearen beharra ez edukitzea. Bada, bi-biek ahalbidetuko dute bidegabeko luzapenak saihestea eta herritar guztiek «Habeas Corpusa» erabiltzea, kontuan hartu gabe herritar horiek euren eskubideen berri duten eta herritar horien ahalbide ekonomikoa zer-nolakoa den.

Hirugarrenik, orokortasuna da lege honek ezarritako prozeduraren ezaugarri; izan ere, pertsonak atxilotzearen legezkotasunaren gainean, kontrol judiziala ezarri behar da, eta kontrol horretatik kanpo ezin da geratu subjektu pribatu edo agintaritzaren agente bat ere; horren inguruan ez dago inolako salbuespenik, ezta agintari militarri dagokionez ere. Orokortasun horren ondorio da, berebat, pertsona askok izatea prozedura hori eskatzeko

© Lege-testu guztien itzulpena eta lan honetako aurkibide analitikoa:

F. Javier Arrieta Idiákez, Anjel Lobera Revilla, Andres Urrutia Badiola eta Ester Urrutia Idoiaga

© Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua

siendo de destacar a este respecto la legitimación conferida al Ministerio Fiscal y al Defensor del Pueblo como garantes, respectivamente, de la legalidad y de la defensa de los derechos de los ciudadanos.

En fin, la Ley está presidida por una pretensión de universalidad, de manera que el procedimiento de «Habeas Corpus» que regula alcanza no sólo a los supuestos de detención ilegal —ya porque la detención se produzca contra lo legalmente establecido, ya porque tenga lugar sin cobertura jurídica—, sino también a las detenciones que, ajustándose originariamente a la legalidad, se mantienen o prolongan ilegalmente o tienen lugar en condiciones ilegales.

Parece fuera de toda duda que la regulación de un procedimiento con las características indicadas tiene una enorme importancia en orden a la protección de la libertad de las personas, así como que permite añadir un eslabón más, y un eslabón importante, en la cadena de garantías de la libertad personal que la Constitución impone a nuestro Ordenamiento.

España se incorpora, con ello, al reducido número de países que establecen un sistema acelerado de control de las detenciones o de las condiciones de las mismas.

Artículo 1

Mediante el procedimiento del «Habeas Corpus», regulado en la presente Ley, se podrá obtener la inmediata puesta a disposición de la Autoridad judicial competente, de cualquier persona detenida ilegalmente.

A los efectos de esta Ley se consideran personas ilegalmente detenidas:

- a) Las que lo fueren por una autoridad, agente de la misma, funcionario público o particular, sin que concurren los supuestos legales, o sin haberse cumplido las formalidades prevenidas y requisitos exigidos por las Leyes.
- b) Las que estén ilícitamente internadas en cualquier establecimiento o lugar.
- c) Las que lo estuvieran por plazo superior al señalado en las Leyes si, transcurrido el mismo, no fuesen puestas en libertad o entregadas al Juez más próximo al lugar de la detención.

d) Las privadas de libertad a quienes no les sean respetados los derechos que la Constitución y las Leyes Procesales garantizan a toda persona detenida.

Artículo 2

Es competente para conocer la solicitud de «Habeas Corpus» el Juez de Instrucción del lugar en que se encuentre la persona privada de libertad; si no constare el del lugar en que se produzca la detención, y, en defecto de los anteriores, el del lugar donde se hayan tenido las últimas noticias sobre el paradero del detenido.

legitimazioa. Horren inguruan nabarmendu behar da Fiskaltzari eta Herri Defendatzaileari aitortutako legitimazioa, hurrenez hurren, legekotasuna eta herritarren eskubideen defentsa bermatu behar dituzten ginoan.

Amaitzeko, legeak asmo unibertatsala du. Hori dela eta, lege honek arautu duen «Habeas Corpus» prozedurara biltzen dira legearen aurkako atxilotetak —atxiloteta egiten delako legeak ezarritakoaren aurka edo babes juridikorik gabe—, bai eta, jatorrian legearekin bat datozen atxilotetak izanda, legearen askatasunaren inguruan antolamenduari ezarri dizkion bermeen katean.

Duda-mudarik gabe, ezaugarri horiek dituen prozedura arautzea oso garrantzitsua da, pertsonen askatasuna babesteko. Duda-mudarik gabe, orobat, arauketa horrek ahalbidetu bide du kate-begi berri garrantzitsua gehitzea, Konstituzioak pertsonaren askatasunaren inguruan antolamenduari ezarri dizkion bermeen katean.

Prozedura hori dela eta, Espainiak bat egin du atxiloteten edo horien baldintzen kontrol- sistema azkarra ezarri duten herrialde apurrekin.

1. artikulua

Lege honetan araututako «Habeas Corpus» prozeduraren bidez lortu ahal izango da legearen aurka atxilotutako pertsona oro berehala jartzea agintari judicial eskudunaren esku.

Lege honen ondoreetarako legearen aurka atxilotutako pertsonak dira:

- a) Agintariren batek, horren agenteren batek, funtzionario publikoren batek edo subjektu pribaturen batek atxilotutakoak, lege-egoeretatik kanpo, edo legeek jasotako formalitateak eta ezarritako betekizunak bete gabe.
- b) Edozein establezimendu edo tokitan modu ez zilegian barneratuta daudenak.
- c) Legeetan zein epe ezarri eta epe hori baino denbora gehiagoz atxilotuta daudenak, baldin eta, legeek ezarritako epe hori igarota, pertsona horiek askatzen ez badira, edo atxiloteta-lekutik gertuen dagoen epailearen esku uzten ez badira.
- d) Askatasunaz gabetuak, baldin eta horiei errespetatu ez bazaizkie atxilotutako pertsona guztiei Konstituzioak eta prozesu-legeek bermatzen dizkieten eskubideak.

2. artikulua

«Habeas Corpus» eskubidearen gaineko eskumena du instrukzioko epaileak. Epaile hori izango da askatasunaz gabetutako pertsona zein tokitan izan eta toki horretakoa; toki horren berririk ez bada, atxiloteta zein tokitan egin eta toki horretakoa; eta, aurreko zehaztasun horiek izan ezean, azkenekoz atxilotuaren berri zein tokitan izan eta toki

Si la detención obedece a la aplicación de la Ley Orgánica que desarrolla los supuestos previstos en el artículo 55.2 de la Constitución, el procedimiento deberá seguirse ante el Juez Central de Instrucción correspondiente.

En el ámbito de la Jurisdicción Militar será competente para conocer de la solicitud de «Habeas Corpus» el Juez Togado Militar de Instrucción constituido en la cabecera de la circunscripción jurisdiccional en la que se efectuó la detención.

Artículo 3

Podrán instar el procedimiento de «Habeas Corpus» que esta Ley establece:

a) El privado de libertad, su cónyuge o persona unida por análoga relación de afectividad; descendientes, ascendientes, hermanos y, en su caso, respecto a los menores y personas incapacitadas, sus representantes legales.

b) El Ministerio Fiscal.

c) El Defensor del Pueblo.

Asimismo, lo podrá iniciar, de oficio, el Juez competente a que se refiere el artículo anterior.

Artículo 4

El procedimiento se iniciará, salvo cuando se incoe de oficio, por medio de escrito o comparecencia, no siendo preceptiva la intervención de Abogado ni de Procurador.

En dicho escrito o comparecencia deberán constar:

a) El nombre y circunstancias personales del solicitante y de la persona para la que se solicita el amparo judicial regulado en esta Ley.

b) El lugar en que se halle el privado de libertad, autoridad o persona, bajo cuya custodia se encuentre, si fueren conocidos, y todas aquellas otras circunstancias que pudieran resultar relevantes.

c) El motivo concreto por el que se solicita el «Habeas Corpus».

Artículo 5

La autoridad gubernativa, agente de la misma o funcionario público, estarán obligados a poner inmediatamente en conocimiento del Juez competente la solicitud de «Habeas Corpus», formulada por la persona privada de libertad que se encuentre bajo su custodia.

Si incumplieren esta obligación, serán apercibidos por el Juez, sin perjuicio de las responsabilidades penales y disciplinarias en que pudieran incurrir.

Artículo 6

Promovida la solicitud de «Habeas Corpus» el Juez examinará la concurrencia de los requisitos para su tramitación y dará traslado de la misma al Ministerio Fiscal.

Seguidamente, mediante auto, acordará la incoación

horretakoa.

Atxiloketaren arrazoia Konstituzioaren 55.2 artikuluko egoerak garatzen dituen lege organikoaren aplikazioa izanez gero, prozedura gauzatu beharko da kasuan kasuko instrukzio-epaile zentralaren aurrean.

Jurisdikzio militarren esparruan, «Habeas Corpus» eskabidearen gaineko eskumena izango du atxiloketa zein jurisdikzio-mugapetan egin eta jurisdikzio- mugape horretan eraturako epaile militar to gadunak.

3. artikulua

Lege honek ezarritako «Habeas Corpus » prozedura eskatu ahal izango dute:

a) Askatasunaz gabetuak, horren ezkontideak edo ezkontidearen antzeko maitasun-harremanen bidez lotutako pertsonak, ondorengoek, aurrekoek, nebarrebekek eta, hala denean, adingabeei eta ezgaitutako pertsonari dagokienez, horien legezko ordezkariak.

b) Fiskaltzak.

c) Herri Defendatzaileak.

Era berean, prozedura ofizioz hasi ahal izango du aurreko artikuluko epaile eskudunak.

4. artikulua

Prozedura idazki edo agerraldi bidez hasiko da, salbu eta ofizioz hasten denean; ez da nahitaezkoa abokatuak esku hartzea, ezta prokuradoreak ere.

Idazki edo agerraldi horretan jaso beharko dira:

a) Eskatzailearen eta lege honek araututako babes judiziala zein pertsonari aplikatzea eskatu eta pertsona horren izena eta inguruabar pertsonalak.

b) Askatasunaz gabetua zein tokitan dagoen, zein agintari edo pertsonaren zainpean dagoen, horiek ezagunak badira, eta garrantzitsuak izan daitezkeen beste inguruabar guztiak.

c) «Habeas Corpusa» eskatzeko arrazoi zehatza.

5. artikulua

Gobernu-agintariak, horren agenteek edo funtzionario publikoek berehala eman behar diote epaile eskudunari «Habeas Corpus» eskabidearen berri, eskabide hori egiten duenean askatasunaz gabetuta euren zainpean dagoen pertsonak.

Betebehar hori bete ezean, epaileak ohartarazpena egingo die haiei, euren izan ditzaketan zigor- eta diziiplina- erantzukizunak gorabehera.

6. artikulua

«Habeas Corpusaren» eskabidea sustatuta, epaileak aztertuko du horren izapidetza egiteko betekizunak dauden, eta eskabidea Fiskaltzari bidaliko dio.

Jarraian, auto bidez, prozedura hastea erabakiko du,

del procedimiento, o, en su caso, denegará la solicitud por ser ésta improcedente.

Dicho auto se notificará, en todo caso, al Ministerio Fiscal.

Contra la resolución que en uno u otro caso se adopte, no cabrá recurso alguno.

Artículo 7

En el auto de incoación el Juez ordenará a la autoridad a cuya disposición se halle la persona privada de libertad o a aquel en cuyo poder se encuentre, que la ponga de manifiesto ante él, sin pretexto ni demora alguna o se constituirá en el lugar donde aquélla se encuentre.

Antes de dictar resolución, oirá el Juez a la persona privada de libertad o, en su caso, a su representante legal y Abogado, si lo hubiera designado, así como al Ministerio Fiscal; acto seguido oirá en justificación de su proceder a la autoridad, agentes, funcionario público o representante de la institución o persona que hubiere ordenado o practicado la detención o internamiento y, en todo caso, a aquella bajo cuya custodia se encontrase la persona privada de libertad; a todos ellos dará a conocer el Juez las declaraciones del privado de libertad.

El Juez admitirá, si las estima pertinentes, las pruebas que aporten las personas a que se refiere el párrafo anterior y las que propongan que puedan practicarse en el acto.

En el plazo de veinticuatro horas, contadas desde que sea dictado el auto de incoación, los Jueces practicarán todas las actuaciones a que se refiere este artículo y dictarán la resolución que proceda.

Artículo 8

Practicadas las actuaciones a que se refiere el artículo anterior, el Juez, mediante auto motivado, adoptará seguidamente alguna de estas resoluciones:

1. Si estima que no se da ninguna de las circunstancias a que se refiere el artículo primero de esta Ley, acordará el archivo de las actuaciones, declarando ser conforme a Derecho la privación de libertad y las circunstancias en que se está realizando.

2. Si estima que concurren alguna de las circunstancias del artículo primero de esta Ley, se acordará en el acto alguna de las siguientes medidas:

a) La puesta en libertad del privado de ésta, si lo fue ilegalmente.

b) Que continúe la situación de privación de libertad de acuerdo con las disposiciones legales aplicables al caso, pero, si lo considerase necesario, en establecimiento distinto, o bajo la custodia de personas distintas de las que hasta entonces la detentaban.

edo, hala denean, eskabidea ukatuko du, hori bidegabea izateagatik.

Edozein kasutan ere, auto hori Fiskaltzari jakinaraziko zaio.

Kasu batean zein bestean emandako ebazpenaren aurka ez da errekurtsorik izango.

7. artikulua

Prozedura hasteko autoan, epaileak askatasunaz gabetutako pertsona zein agintari edo subjekturen esku izan eta agintari edo subjektu horri aginduko dio, askatasunaz gabetua beraren aurrera eraman ezean, aitzakia eta atzerapenik gabe, askatasunaz gabetutako pertsona dagoen tokira joango dela.

Ebazpena eman aurretik, epaileak entzungo du askatasunaz gabetutako pertsonak, edo, hala denean, horren lege-ordezkariek eta abokatuak, halakoa izendatuz gero, eta Fiskaltzak esan beharrekoa; jarraian, epaileak, bere jarrera justifika dezan, entzungo du atxiloteta edo barnealdia agindu edo egin duen agintariak, agenteek, funtzionario publikoak edo erakundearen ordezkariak nahiz pertsonak esan beharrekoa, eta, edozein kasutan, askatasunaz gabetutako pertsona zein subjekturen zainpean izan eta subjektu horrek esan beharrekoa; epaileak horiei guztiei emango die askatasunaz gabetuak egindako adierazpenen berri.

Epaileak onartu egingo ditu, egokitzat jotzen baditu, aurreko lerrokadako pertsonen ekarritako frogak, eta pertsona horiek proposatuta berehala gauza daitezkeenak.

Hogeita lau orduko epean, prozedura hasteko autoa eman denetik zenbatzen hasita, epaileek artikulua honen jarduera guztiak gauzatuko dituzte, eta bidezkoa den ebazpena emango dute.

8. artikulua

Aurreko artikuluko jarduerak gauzatuta, epaileak, auto ziodunaren bidez, berehala emango du ebazpen hauetako bat:

1. Lege honen lehenengo artikuluko inguruabarrak ez daudela ulertuz gero, epaileak jarduna artxibatzea erabaki eta adieraziko du zuzenbidearekin bat datozeala askatasunaz gabetzea eta askatasun gabetze horri eusteko inguruabarrak.

2. Lege honen lehenengo artikuluko inguruabarren bat dagoela ulertuz gero, berehala hartuko da neurri hauetatik bat:

a) Askatasunaz gabetutakoa askatzea, gabetze hori legearen aurkakoa izan bazen.

b) Askatasunaz gabetzeari eustea, kasuan-kasuan aplikatu beharreko lege- xedapenekin bat etorrita, baina, beharrezkotzat joz gero, beste establezimendu batean, edo beste pertsona batzuen zainpean, ordu artekoen orde.

c) Que la persona privada de libertad sea puesta inmediatamente a disposición judicial, si ya hubiere transcurrido el plazo legalmente establecido para su detención.

Artículo 9

El Juez deducirá testimonio de los particulares pertinentes para la persecución y castigo de los delitos que hayan podido cometerse por quienes hubieran ordenado la detención, o tenido bajo su custodia a la persona privada de libertad.

En los casos de delito de denuncia falsa o simulación de delito se deducirá, asimismo, testimonio de los particulares pertinentes, al efecto de determinar las responsabilidades penales correspondientes.

En todo caso, si se apreciase temeridad o mala fe, será condenado el solicitante al pago de las costas del procedimiento; en caso contrario, éstas se declararán de oficio.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Estado.

c) Askatasunaz gabetutako pertsona berehala epailearen esku jartzea, baldin eta igaro bada legeak pertsona hori atxilotzeko ezarri epea.

9. artikulua

Epailleak lekukotzak jasoko ditu, egokitatz jotako subjektu pribatuengandik, atxiloketa nork agindu edo askatasunaz gabetutako pertsona zainpean nork izan eta horiek egin ahal izan dituzten delituak pertsegitu eta zigortzeko.

Salaketa faltsuaren delitua edo delituaren itxura-egitea dagoenean, berebat, epailleak lekukotzak jasoko ditu, egokitatz jotako subjektu pribatuengandik, kasuan kasuko zigorerantzukizunak zehazteko.

Edozein kasutan ere, ausarkeria edo gaitzuste atzemanaz gero, prozeduraren kostuak ordaintzeko kondena ezarriko zaio eskabidea egin duenari; halakorik ez bada atzematzen, ofizioz adieraziko dira prozeduraren kostuak.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau indarrean jarriko da Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.